

Donostian, 2020ko uztailaren 20an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

PRESAZKO ZUZENEKO INTERPELAZIOA, ABIADURA HANDIKO TRENBIDEKO OBRETAKO ZABORTEGI BAT BELARTZA II EREMUAN JARTZEARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Organo Araudiko 97. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartuta, Belartza II abiadura handiko trenbideko obretarako hondakindegia moduan erabili ahal izatearen gaineko PRESAZKO ZUZENEKO INTERPELAZIO hau egiten diot Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkari Nekane Arzallusi.

PRESA JUSTIFIKATZEA

Gai hau lehenbailehen aztertu behar dela uste dugu, AHTren Gipuzkoako obren testuinguruan, ekainaren 22an BOEn iragarri baitzuen "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRENBIDE SARE BERRIAREN INFORMAZIO AZTERLAN OSAGARRIA. TARTEA: ASTIGARRAGA-LEZO" jendaurrean jartzeko epea hasten zela, eta, azterlan horren barruan, Donostiako lurralde eremuari dagozkion jarduerak aurreikusten dituzte; zehazki, jarduketa horietako batek Belartza II eremua zabortege gisa erabiltzea dakar, trenbidea tarte horretan egiteko obretako hondakinak botatzeko.

Alegazioak aurkezteko epea laster amaituko denez, abuztuaren 3an hain zuzen, uste dugu Udalak denbora gutxi duela eremu hori babesteko, Belartzako lurren balantzea neutroa izango dela bermatzearen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 291/2019 epaiak adierazi bezala.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko ekainaren 17an, Azpiegituren Idazkaritza Nagusiak erabaki du behin-behinekoz onestea "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRENBIDE SARE BERRIAREN INFORMAZIO AZTERLAN OSAGARRIA. TARTEA: ASTIGARRAGA-LEZO".

Azterketaren behin-behineko onespeneren ondorioz, eta Trenbide Sektoreari buruzko 38/2015 Legearen 5.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, azterlan hori jendaurrean jarri zuten 30 egun baliodunean, ekainaren 22an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Beraz, abuztuaren 3an bukatuko da alegazioak aurkezteko epea.

Azterlan horren barruan, 4. dokumentuan, "Ingurumen eraginaren azterlanari" buruzkoan, eta 5. eranskinean ("Maileguak eta zabortegeiak"), planteatzen dute non dauden obrak egiteko behar dituzten materialak lortzeko eta egingo dituzten hondeaketen ondoriozko soberakinak hartzeko behar diren azalera egokienak. Proiektuaren ingurunean ahalik eta eragin txikiena izatea da helburua. Alde horretatik, dokumentuak berak onartzen du obrarako instalazio mota horiek, oro har, eragin handia dutela ingurumenean, bereziki geologiari, geomorfologiari (erliebea), landarediari, faunari, paisaiari eta uren kalitateari dagokienez, eta, horregatik, ezinbestekoa da materialak lortzeko eta soberakinak botatzeko eremuak aztertzea.

Dokumentuaren arabera, ingurumenaren ikuspegitik, lehengoratzeko planetan betelanak onartzen dituzten meatze ustiategi aktiboak eta dagoeneko zabaldik dauden zabortegeiak erabiltzea da aukerarik onena.

Hala ere, mailegu eta zabortegei buruzko dokumentuko V-12 fitxan, Belartza 2ko lurra soberakinak botatzeko eremu gisa planteatzen dira. Fitxa horretan, lurzorua modu desegokian identifikatu da: "gaur egun ustiatzen ari den harrobi bat da; beraz, lur hondakindegia gisa erabiltzeak ez du eraginik ingurumenean, erauzketa jarduerak dagoeneko degradatuta daukanez gero". Era berean, adierazi du "abiapuntuko egoeraren ezaugarria dela kontserbatzeko moduko ingurumen faktorerik ez egotea".

Baieztapen horiek faltsuak dira: lurrak ez dira harrobi batekoak, Interes Komunitarioko Habitat bat baizik, fitxak berak onartzen duen bezala, zeinean hirigintzako zinegotzi ordezkariak aurreko legegintzaldian obra lizentzia eman baitzuen Lurzoruaren Legearen aurka eta, beraz, legez kontra, 20 hilabeteko behin-behineko betelana egiteko.

Alde horretatik, gogorarazten dizuegu ezen, enpresak materialak kentzeko behin-behineko lizentzian emandako epea betetzen ez zuenez gero, Udalak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak baimentzen duen bezala, hertsatzeko gehienezko 10 isun ezarri zituela, eta, esan zuenez, hirigintzako zinegotzi ordezkariak joan den ekaineko osoko bilkuran esan bezala, lurrak inoren ordezkariak ditu Udalak. Era berean, duela urtebetetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 291/2019 epaiak lurrak kentzeko eta eremua jatorrizko egoerara itzultzeko eskatzen du.

Horrela, , Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 291/2019 epaian ezarritakoaren arabera, eta Plan Partzialak xedatzen duela sektoreak ez duela kanpoko lurrik behar sektorea garatzeko, ondorioztatzen dugu ez duela inolako zentzurik eremu horretan betelana egitea aurreikusteak.

Hori dela eta, hauxe aurkezten dugu

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez du orain arte udal Gobernuak inolako neurririk hartu AHTren obretarako zabortege bat Belartzako eremuan ezartzea saihesteko?
2. Udal Gobernuak ba al zekien Belartza 2an zabortege bat jartzeko asmoa dutela?
3. Zinegotzi ordezkariaren ustez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 291/2019 epaia betetzeko erabakirik ezak eta esparru horretan egin diren isurketek AHTrako zabortege bat sortzeko proposamena erraztu al dute?

4. Ba ote duzu AHTren obretarako Belartzako eremuan zabortege bat jartzea saihesteko jarduketarik egiteko asmorik? Erantzuna baiezkoa bada, zer jarduera mota egingo duzue?

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia.